

COVID19aren AURREKO PREBENTZIO NEURRIAK

KIROL ESKOLAK

EGUNERATZE DATA: 2020/08/24

1. **Musukoa erabiltzea:** Instalazioan sartzen diren 6 urtetik gorako pertsona guztiak **musuko higienikoa nahitaez erabili beharko dute**, monitoreak jarduera egiteko huraxe ken daitekeela esan arte.

Musukoa jantzita eramaten ez dutenei **ez zaie instalazioan sartzen utziko**.

2. **Eskuak garbitzea:** Instalazioaren sarreran, soluzio hidroalkoholikoa eskuetan emateko gailuak jarriko dira, eta **jarduera egin aurretik eta ondotik erabili beharko dira**.

3. **Instalazioan sartu eta bertatik ateratzea:** Monitoreak lagundurik, beti; beraz, monitorearen **zain egon beharko dute horretarako ezarri den topagunean**.

Jarduerak ongi funtzionatuko badute, ikasleek eta gurasoek **puntueltasunez egon beharko dute** jardueraren hasieran eta bukaeran.

4. **Instalazio barnean mugitzea:** Errespetatu instalazioetan jarri diren seinaleak bai taldeen sarrerari, irteerari, zirkulazioari eta topaguneei buruz, bai aretoetan pertsona bakoitzarentzat ezarritako tokiari buruz.

5. **Materiala garbitzea:** Saio bakoitzaren azken 5-10 minutuan, ikasle bakoitzak instalazioko materiala garbitu beharko du, horrelakorik erabili badu.

6. **Arropa berogarria:** Gomendagarria da arropa berogarria eramatea lan arina egiten den faserako. Izan ere, ahal den bakoitzean, atek eta leihoak zabalik utziko dira aretoa etengabe aireztatzeko. Era berean, ahal den bakoitzean, saioa atari zabalean egingen da.

7. **Aldagelak:** Debeak dago aldagela erabiltzea. Etxetik arropa egokia jantzita etorri beharko dute.

8. **Ikusleak harmailetan:** Besterik esan arte, ikusleei ez zaie baimenik emanen lehiaketa eta entrenamenduak ikusteko.

9. **Sarrera debekua:** Jardueran aritza eragotziko zaie bai COVID-19 gaitzarekiko sintoma bateragarriak dituztenei; bai gaixotasuna diagnostikatu zaienei, bai isolamendu-aldia bukatu gabe dutenei, bai eta etxeko berrogeialdian daudenei ere, harreman estua izan dutelako dela COVID-19 gaitzaren sintomak dituen batekin dela gaixotasun hori diagnostikatu dioten pertsona batekin.

10. **Protokoloa COVID-19 kasuaren aurrean:** Ikasle edo monitoreren batek susmatzen badu edo detektatzen badu COVID-19 gaitzaren sintomaren bat duela, Nafarroako Foru Komunitateko erreferentzia telefonora deitu beharko du (948 290 290).

11. **Bestelako neurriak:** Bestelako prebentzio neurriak ere ezartzen ahalko dira jarduera jakin batzuetan, beren ezaugarri bereziak direla-eta, horrelakoak behar badira.